

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

229 positibo berri
1813 hildako EAEn
9394 positibo guztira* UCln EAEn

NAFARROAN

334 positibo berri
555 hildako
14560 positibo guztira UCln Nafarroan

*HERNANIN 301, ASTIGARRAGAN 53

Pintxo-potea, sagar muztioaren elaborazioa eta kirikoketa tailerra, hiru egunetan zehar

XXgarren Sagarraren Uztarekin hiru egunetan sagardoaren mundua hobeto ezagutzeko aukera izango da. Egitarau zabala da aurtengoa, eta hainbat jarduerak antolatuta dituzte. Plazak mugatuak dira eta aurrez izena eman behar da.

ASTIGARRAGA SAGARDOA

Datorren ostegunean, larunbatean eta igandean XXgarren Sagarraren Uztaren 2020 ekitaldia ospatuko da Astigarragan. COVID-19a dela eta, festa hau egoera berrira moldatu da, eta segurtasun neurri guztiak errespetatuz eta edukiera mugatuz, jarduerak ezberdinak antolatuta dira, herritarrek sagarraren uztara garai ospatzeko: sagar muztioaren elaborazioa familian, helduentzako kirikoketa tailerra eta sagardo sagarren kata.

XXgarren Sagarraren Uztaren 2020 ekimena Astigarragako tabernek eskainiko duten sagarraren eratorriekin egindako pintxo-pote bereziarekin hasiko da ostegunean. «Aurtengo egitaraua, ordea, egoera berrira moldatu eta

COVID-19ak ezarritako segurtasun neurri guztiak bermatuz ospatuko da», azaldu dute antolatzaileek. Ondorioz, Astigarragako Foru plazan ospatu ohi diren sagar muztioaren elaborazio lanak Sagardoetxean egingo dira, irailaren 26 eta 27an herriko familien partaidetzarekin, talde txiki eta txanda ezberdinetan antolatuta, eta Goldea Herri Kirol Elkartearen laguntzarekin.

Egiteko ugari, azken egunetan Igandeen, irailaren 27an, sagar muztioaren elaborazio lanak familian egiteaz gain, helduentzako kirikoketa tailerra eta sagardo sagarren kata ere izango dira, Sagardoetxean. Goizeko 10:30etatik 12:30etara bitartean izango dira lehenengo bi jarduerak, eta



Joan den urtean ere egin zuten bisita gidatua, Sagardoetxean.

12:00etatik aurrera egingo dute sagar kata.

Aipaturiko jarduerak hauen plazak mugatuak izango dira eta beraz, sagar muztioaren elaborazio lanetan, kirikoketa tailerrean eta sagar katan parte hartu nahi duten herritarrek, aurrez izena

eman beharko dute, www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean sartuta.

Hiru egunetan zehar egingo diren jarduetan derrigorrezkoa izango da maskarilla erabiltzea eta higiegi eta segurtasun neurri guztiak behar bezala betetzea. **K**

Hainbat obra egiteko kontratuak esleitu ditu Udalak, eta urrian hasiko dira birgaitze lanak

Obra guztiak urrian hasteko erabakiarekin batera, beste hainbat zehaztapen ere egin ditu Udalak: diru-laguntzak, garbiketa indartzea eta abar.

ASTIGARRAGA OBRAK

Joan den astean izandako Tokiko Gobernu Batzarrak, herri mailan obra garrantzitsu batzuk egiteko kontratuak esleitu zituen. Guztira lau izango dira urrian zehar egingo dituzten birgaitze lanak, eta Santiomendin, Perurenako auzo lokalean eta *pump truck* pistetan egingo dira.

Datorren hilabetean egingo den birgaitze lanetako bat Santiomendin auzo hiritartzea izango da. Obra hauetan euri urak jasotzeko ubidea berritu, argiteria publikoa eta telekomunikazioak lurpetik pasa eta errepidea berrituko da. «Auzoari onura ugari ekarriko dizkion lanak izango dira», azaldu zuen Udalak.

Urrian, baita ere, DBH-San-

tiomenditik Mendiandira doan linea elektrikoa lurperatzeko lanak egingo dira. Izan ere, Mendiandi-Aranibarreko orubean DBHko ikastetxea eraiki ahal izateko hainbat urbanizazio lan egingen ari da Udala; besteak beste, orubea zeharkatzen duen linea elektrikoa lurperatzeko lanak.

Bestalde, Perurenako bizilagunek egindako eskariari erantzun nahi izan dio Udalak, eta Perurenako auzo lokala egokitu eta berritu egingo da: instalazioak, komunak, eta bestelakoak. Eta azkenik, urtea amaitu baino

lehen, *pump truck* pista egingo dute. Lehenik pistaren proiektua idatziko dute, eta gero hasiko dira proiektuaren obrarekin.

Beste zenbait gai

Udalak eraikinak garbitzeko kontratua aldatu du. «Aldaketa hau bereziki, koronabirusaren ondorioz udal eraikinetako garbiketa zerbitzua indartzeko egin da», azaldu dute. Eta bestetik, hainbat diru-laguntza ematea onartu du: Gazte Asanblada, Sagarrarte, Herri Eskola eta Danak Bat Ergobiko kultur elkarteak. **K**

Gitarra ikastaroan, aukera oraindik

HERNANI IKASTAROK

Matrikulazio epea zabalik dago gitarra ikastarorako, Kantuz musika eskolan. 9 urtetik gorako gazte eta helduentzat da, eta datorren asteartera bitarte izango da aukera, udaletxeko Herritarren Harrera Zerbitzuan, aldezturik hitzordua eskatuta: 943 33 70 00 telefonora deitu behar da. Ordubeteko saioak izango dira arratsaldean, astean behin, urritik ekainera.

Kostaldeko Soinuak taldearen kontzertua, urriaren 23an

HERNANI MUSIKA

Kostaldeko Soinuak taldearen kontzertua izango da Hernanin, urriaren 23an, San Joan Konpartsa elkarteak antolatuta. Biterin izango da, arratsaldeko 19:30etan hasita; eta dagoeneko jarri dituzte sarrerak salgai, Monica mertzerian eta Oindi tabernan, 10 euroan. Juan Mari Beltranen inguruan osatutako proiektua da Kostaldeko Soinuak, eta tartean da Ander Barrenetxea hernaniarra.

Artisau azoka gaur, Atsegindegin

HERNANI ARTISAU AZOKA

Gabiltza Elkartek antolatuta, kultur ekintzen programazioari jarraipena emateko artisau azoka izango da gaur Atsegindegin, goizeko 11:00etatik aurrera.

Goiz Eguzkik, gabonetako loteria

HERNANI LOTERIA

Urtero bezala, salgai jarri du Goiz Eguzkik gabonetako loteria. Urbieta kaleko Lete administrazioan erreserbatuta dute 97860 zenbakia, bazkideentzat. Dezimo osoak dira eta abenduaren 18ra arte egingo dira salgai.

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

Samitek
Bulego makinaren salmenta eta mantenimendua
samitek@samitek.es
www.samitek.es
TOSHIBA
INFORMATIKA SAIL BERRIA
943 11 77 44
Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak

OGI BERRI
OKINDEGIA
GOZOTEGIA
Kontxa etxeberría 2
Astigarraga
943 12 64 24

AITAN-ETXE TABERNA
Larramendi, 15
943 55 00 46

GAUR Oraindik zaparradak bota ditzake. Ezegonkortasuna egongo da eta zaparradak bereziki barnealdean eta arratsaldean espero dira. Hasieran hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, baina goizean ipar-mendebaldetik finkatzen joango da. **Min.16° / Max.24°**

BIHAR Oraindik bustitzeko probabilitatea egongo da. Hodeitza aldakorra izango da eta zaparradak bereziki arratsaldean bota ditzake. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da eta temperatura berdintsuekin jarraituko dugu. **Min.17° / Max.23°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Aguado** Nagusia, 21 (Astigarraga) **943 550327** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



Endika bere lehenengo finalera sailkatu da Juanenea gaintituta

Atzoko emaitzekin Endika eta Urrizaren artekoa izango da, Kutxabank Torneoko final haundia.

HERNANI ERREMONTA

Endika finaletik gertu geratu izan da beti, baina atzo arte ez zuen inoiz Kutxabank Torneoko finalerako sailkapena lortu. 23-30 irabazi zion Juaneneari final-lurrekoan, eta emaitza honekin datorren larunbatean Urrizaren aurka jokatu du erremontearren final haundia.

Dirua bere alde irten zen hasieran, 50 100i, baina partidua gogorra eta parekatua izan da. 20-19ra arte Juanenea joan zen aurretik, baina Saldiaseko



Endika garaipena ospatzen, Juanenearen aurkako atzoko partiduan.

atzelariak indar gehiagorekin amaitu zuen eta markagailuari buelta ematea lortu zuen. 20-19tik 20-25era pasa ziren, 0-6ko partzialarekin, eta momentu horretan garaileak lortu zuen abantaila erabakigarria izan zen. Amaieran Juanenea itza-

liago egon zen jokoan, eta ordu-ra arte erakutsitako sendotasun hori desagertu egin zen.

Juaneneak txapelketa bikaina egin duen arren, ezin izan zuen guztiz borobildu atzoko partidarekin, eta oraingo honetan ez da finalerako sailkatu. **K**

Alokatutako pisu eta lokaletako «ezustekoekin» amaitu nahi dute

Pisu eta lokaletako jabeen eta inkilinoen artean gatazkak amaitzeko eskaera luzatu du EAJ-PNVk.

HERNANI EAJ-PNV

Andoni Amonarrazi Gómezek, EAJ-PNV alderdi politikoko Hernaniko bozeramaileak, herriko lokal eta etxebizitzetako obralientzien eskatzaile guztiei zuzendutako testu juridiko bat lantzea eskatu dio EH Bilduri, bere alderdiaren izenean. «Obralientziaren eskatzaile guztiak honetara behartzen dituen testu juridiko bat lantzea eskatu dugu: lokalen jabeak direla egiaztatzea edo, eskatzailea inkilinoa bada, jabeak higiezinan egin nahi di-

tuen obrekin ados dagoela adierazi behar du».

Amonarraizen esanetan, hainbat bilera izan ditu alderdiak honen inguruan hitz egiteko. «Etxebizitzaren eta lokalen jabeek zerbait egiteko eskatu ziguten, alokairua amaitu ondoren izan dituzten ezustekoak saihesteko». Hutsik dauden etxebizitzaren jabeek segurtasuna adierazi behar zaie la aipatu dute, gero «merkatuan eskuragarri jartzeko». Eta horregatik, egoerari konponbidea jartzeko eskatu dute.

Bestalde, alderdiak adiera-

zi du jabeak bere pisuan edo lokalean egiten diren aldaketek berri izan behar duela uneoro. «Etorkizunean sor daitezkeen arazoak saihesten edo minimizatzen ahalegindu behar dugu erakundeek eta horregatik, gure proposamena aztertzeke eskatzen dugu».

Azkenik, Udal mailako gaietan laguntza edo argibideak behar izanez gero, alderdi politikoarekin harremanetan jartzera animatu dituzte herritarrek. Horretarako, goizetan 943 337 012 telefonora deitu daiteke eta arratsaldetan, 943 337 012 telefonora. Bestela, 16:00etatik 19:00etara bitartean, asteleheneetik ostegunera, Batzokira bertaratu daiteke. **K**

Telebistaren antenen aldaketak eragin ditzaketan ondorioen berri, Udalak

Antenen aldaketak egiten ari direla eta, herritarrek etxeetan eragina sumatuko dutela ziurtatu dute.

GOIZUETA TELEBISTA

Azken egunotan telebistaren antenen egiten ari diren aldaketak eragin ditzaketan ondorioen berri eman zuen Udalak. Etxeba-

karreko Etxeetan telebista birsintonizatu besterik ez dute egin behar; antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, teknikari batek egokitzapenak egin ondok, birsintonizatu beharko ditu.

Literaturaren txanda, astearteko ekintzetan

Arratsaldeko 17:30etan txikientzat ipuin kontaketa izango da Biterin, eta 19:00etan literatura solasaldia, udal liburutegian.

HERNANI KULTURA

Iraila osoan zehar hainbat kultur ekintza antolatu ditu Udalak. Dantza emanaldiak, tailerrak, antzerkiak, musika emanaldiak eta beste hamaika aukera eskaintzen ditu egitarauak. Atzoko egunean Oreka TX taldearen

dantza emanaldia, nazioarteko eta euskal sagardoen dastaketa, eta Hernaniko Musika Bandaren kontzertua izan ziren.

Bihar ez dago programaturiko kultur ekintzarik, baina asteartean literaturaz bustiko da Hernani. Arratsaldeko 17:30etan ipuin kontaketa izango da Biterin, 4-6 urte bitartekoentzat. Maite Franko izango da ipuin kontalaria eta gonbidapenak aurretik eskuratu behar dira, Biteriko sarreran. Eta 19:00etan, Ane Mayozen literatura solasaldia gidatuko du euskaraz, udal liburutegian. **K**

Kiroldegiko ikastaroetako izen-ematea, bihartik

Aire libreko jarduerak, 'fitness' gelan egitekoak edo uretako ikastaroak izango dira aurtengo protagonistak.

HERNANI IKASTAROK

Ume eta gaztetxoentzako ikastaroetako izena eman nahi duten neska mutilek, bihartik irailaren 28ra arte dute izena emateko aukera. Hainbat modu daude inskripzioa egiteko: kiroldegiko webgunean bertan, <https://web.hernani.eus/kirola/login.aspx> estekan, edo bulegoan ere, alde aurretik hitzordua hartuta (943 552 185).

Aire librean, *fitness* aretoan eta uretan izango dira ikastaroak, eta hauek aurrera atera

ahal izateko, gutxieneko kopurua beharko da. Izena eman dutenak dauden plazak baino gehiago badira, zozketa bidez esleituko dira plaza horiek. Plazarik gabe geratzen denak aukera izango du beste talde batean izena emateko, betiere taldea osatu arte eta izena emateko hurrenkerari jarraituz.

Pertsona bakoitzak eskaera bakarra egin ahal izango du, ikastaro mota bakoitzean. Eskaera orri bakoitzean bi ikastaro desberdin izendatzeko aukera izango da, lehen ikastaroan plazarik egokitu ezean, beste ikastaro batean aukera izateko.

Eta bestalde, hiruhilekoak diren ikastaroetan izena emateko garaian, Udalak adierazi du ikasle berriek izango dutela lehentasuna. **K**


Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzeko duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II. URTEURRENA
Antonia Cuenca Perez

Ez zaitugu ahaztuko

ZURE FAMILIA



Hernanin, 2020ko irailaren 20an

IRAGARKI MERKEAK

58 urteko emakumea eskaintzen da gauetan gaixoak zaintzeko, bai beraien etxeetan baita ospitalean ere. Eskarmentuarekin. **Deitu: 644 269 848**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**